

telebista ♦ irratia

Atzerritarrentzat emankizun bereziak, Baionako Herri Irratian

Bihartik aitzina, astelehenetik ostiralera ordu biko saioak emango dituzte

Erredakzioa / Donostia

Bihar hasi eta irailaren 8a arte, atzerritarrentzat irratsaio bereziak eskainiko dituzte Baionako Gure Irratian. Egunero bi orduz, eguerdian eta iluntzean, Euskal Herriko historia hizkuntza ezberdinetan entzuteko aukera izango da. Horrez gain, kantu ikastaroak ere emango dituzte arratsero.

UDA Euskal Herrian igaroko duten atzerritarrek euren jatorrizko hizkuntzan irratsaioak entzuteko aukera izango dute, Baionako Gure Irratiak martxan ipini duen programazioari esker. Bihar hasita eta irailaren 8a arte, astelehenetik ostiralera, Euskal Herriko historia eta ezaugarriak buruzko irratsaioa emango dute, egunero, 13:30etik 14:30era. Gainera, iluntze aldean, 20:00etatik 21:00etara, eguerdiko emanaldia errepikatuko dute.

Frantsesa eta beste hizkuntza bat tartekatuta, irratikate horrek ahalik eta atzerritar gehienengana iritsi nahi du. Astelehenetan frantsesa eta ingelesa erabi-



EGUNKARIA

Euskal Herriko historia, folklorea, ohiturak eta gastronomia landuko dituzte, besteak beste, irratsaioan.

liko dituzte, astearteetan frantsesa eta alemaniera, asteazkenetan frantsesa eta italiara, ostegunetan frantsesa eta gaztelera eta ostiralean, berriz, hiru hizkuntzotarako tarte egin dute: frantsesa, euskara eta ingelesa.

Euskal Herria ardatz

Irratsaio horren ardatza Euskal Herriko historiak osatzen du. Hala ere, beste gai batzuek ere tarte izango

dute; hala nola Euskal Herriko paisaiak, arkitektura, elizak, euskararen egoera, gastronomia, dantza, musika, festak, eta Donejakue bidea. Horrez gain, ikuskizunen agenda ere eskainiko dute.

Ekimena Baionako Gure Irratiak aurrera eramango badu ere, Turismo Bulegoak antolatutako iniziatiba da. Sasoi honetan Euskal Herria bisitatzera datozei zerbitzu berezia eskaini nahi

zaie eta, era berean, informazio erabilgarria eman.

Kantu ikastaroak

Baina udako programazioak badu beste berrikuntzarik: bihar bertan, 19:00etatik 19:30ak bitartean, kantu eta musika kontuetan sakontzeko parada eskainiko dute. Saioa egunero izango da, eta hainbat kantari izango dira Gure Irratian arratsero.

laburrean

'CQC' saioak agur dio gaur, irailera arte

Urteari agur esango diote gaur arratsaldean *Caiga Quien Caiga* saioa erreportariak. Agurtzeko, ekitaldi bereziz betetako saioa eskainiko dute Tele5 katekoek. Irudi dibertigarrienak pilatzeaz gain, orain arte ikusi ez diren akatsak ere emitituko dituzte. Baina urrezko brotxea Kiko Veneno abeslariak ipiniko du. Saioan zehar, *La familia pollo* bere azken laneko hainbat kantu eskainiko ditu, saioa bandako musikariekin batera.

Patxi Ortun estilista 'Submarino amarillo' saioan gonbidatu

Submarino amarillo saioak Patxi Ortun estilista hartuko du biharkoan gonbidatu. Udako arropa, bainujantzi eta orrazkera joerak azaltzeaz gain, gure irudia hobetzeko hainbat aholku emango ditu.

Txirrindularien arriskuez jardungo dute 'Linea 900' saioan

Ciclista busca pista izenburuarekin, txirrindulariek errepidean jasan behar dituzten erasoengururua mintzatuko dira gaur iluntzean *Linea 900* saioan, La2en. Urtean 100 lagun inguruk bizi galtzen du errepidean, bizikleta gainean doala izandako istripuen ondorioz. Gai horri buruz zer esanik duten hainbat lagunen iritzia entzuteko aukera eskaintzen dute gaurko saioan eta, gainera, Donostiak txirrindulariekin duen begirune bereziaz ere hitz egingo dute.

Magazine berria Tele5n, bihartik aurrera

Quédate conmigo izenburua duen magazine berria estreinatuko dute bihar Tele5n. Ely del Valle bilbotarrak aurkeztuko duen saioa genero horretan berrikuntzak sartu nahi ditu, eta orain arteko ereduarekin hautsi.

Bon Jovi taldeari buruzko saio berezia ETB1ean

■ 'Oporrok' musika saioak tarte berezia eskainiko dio rock taldearen azken lanari

Erredakzioa / Donostia

Gaur gauean, *Oporrok* musika saioaren barruan, Bon Jovi taldearen inguruko tarte berezia emitituko dute Euskal Telebistaren lehenengo katean. Besteak beste, joan den maiatzaren 25ean kaleratu zuten azken lanari buruzko informazio zabala eskainiko dute. Horrez gain, talde baterano horren urteotako ibilbideari errepasoa egingo diote eta, nola ez, orain arte eman

dituzten zuzeneko kontzertuetako irudirik onenen bilduma ikusgai ipiniko dute.

Bost urte isilik egon eta gero, taldea inoiz baino indartsuago itzuli da. *Crush* izeneko azken lanaren 100.000 kopia baino gehiago saldu dituzte aste bitan, eta orain arteko marka guztiak hautsi. Gainera, munduko salmenta zerrenda garrantzitsuenetan bigarren postuari eustea lortu dute azkenengo hiru aste hauetan, euren lan berriari esker.



EGUNKARIA

Musikari eskaintako *Oporrok* saioak arreta berezia eskainiko dio Bon Joviren azken diskoari.